



MATRIKULA ZABALIK

Urtarrilaren 29tik otsailaren 9 arte, 2 urtetik (2016 urtean jaiotakoak) 16 bitarteko ikasmaitan matrikulatzeko epea zabalik izango dugu Laudio Ikastolan.

2018/2019 ikasturtean ikastolako edozein mailatan lehenbiziko aldiz matrikulatuko diren ikasleei zuzendutako epea da.

ATE IREKIAK

Urtarrilaren 26an ate irekien eguna burutuko dugu familia berriek Ikastola ezagutu dezaten.

Haur Hezkuntzako topaketa 15:30etik 19:30era burutuko da eta bertora Laudio Txikiko familiak ere gonbidatuta daude bertan egongo diren ekintzetan parte hartzeko. DBHko hitzordua berriz, 17:30ean izango da.

VIII. ORIENTAZIO AZOKA

Ostiralean, urtarrilaren 19an, ospatuko da Ikastolako 8. Orientazio akademiko eta profesionalerako azoka.

Ekitaldian hainbat unibertsitate eta Lanbide Ikastetxeetako informazioa jasotzeko aukera eskaintzen da, ikastetxe bakoitzak azokan jarriko duen informazio gunearen bidez zein ostiral arratsaldean zehar eskainiko dituzten hitzaldien bidez.

Goiz partean DBH4tik aurrerako ikasleek orientazio akademiko eta profesionalarekin lotutako tailer eta saio praktikoak izango dituzte. Arratsaldean berriz, informazio guneak jarriko dira Ikastolako sarreran 15:30etik aurrera eta jarraian, 16:00etatik aurrera, bertan izango diren ikastetxe eta unibertsitate ezberdinen aurkezpen hitzaldiak eskainiko dira.

LEHEN HEZKUNTZAKO GURASO ESKOLA

Urtarrilaren 22an, astelehenean, Lehen Hezkuntzako guraso eskolaren saioa burutuko dute Ikastolako sarrerako batzar gelan 14:45etik 16:00etara Osadi psikologia osasun zerbitzu aholkuraritzaren eskutik.

Oraingoan landuko den gaia "Nola garatu autoestimua gure seme-alabengan. Frustrazioaren garrantzia" duzue.

Interesatuok izena emateko formularioa bete beharko dute urtarrilaren 19a baino lehen.

Hurrengo saioak otsailaren 19an, martxoaren 12an eta apirilaren 9an, astelehenak, programatu dira. Bertan landuko diren gaiak aurrerago iragarriko dira.

izena eman 




ARATUSTEAK HAUR HEZKUNTZAN

Aratusteak hubil ditugu eta urtero legez mozorroa prestatzeko garaia heldu da. Aurten Ikastolako gaia ZIRKUA izango da. Haur Hezkuntza etapari pailazo mozorroa egokitu zaio...

Etxean ditugun koloretako arropekin egitea proposatzen dizuegu, nahi duzuen bezala, hau da, norberaren irudimenaren esku. Irudi ezberdinak ikusteko aukera interneten ere eskura duzue.

Animo! oso polita aterako zaizue!



HAUR HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOAN ERE FRUTA EGUNA EGINGO DUTE

Lehen Hezkuntzan abiatutako ekimenari helduz, hemendik aurrera asteazkenero Fruta Eguna burutuko dugu Haur Hezkuntzan jolastokietako hamaitakoa hartzeko orduan.

Gogoan izan txanda egokitzen zaion ikasle bakoitzak sasoiko fruta ekarri beharko duela, 7 sagar, 2 kilo marrubi, 3, 4 edo 5 urteko 25-26 haurrek jateko modukoa.

Honekin, ohitura osasungarria hartzea dugu helburu eta fruta jateak elikaduran duen garrantzia sustatzea.





CAMPAÑA DE MATRÍCULA

El plazo de matrícula en todos los niveles educativos de la Ikastola de 2 (año de nacimiento 2016) a 16 años permanecerá abierto del 29 de enero al 9 de febrero.

La campaña está dirigida al alumnado que en el curso 2018/2019 se matricule por primera vez en la Ikastola en alguno de estos niveles.

JORNADA DE PUERTAS ABIERTAS

El 26 de enero realizaremos una jornada de puertas abiertas para dar a conocer la Ikastola a nuevas familias.

En Educación Infantil la cita será de 15:30 a 19:30 y contará con la participación de las familias de Laudio Txiki para participar en las actividades que se realizarán. En ESO la cita será a las 17:30.

VIII FERIA DE ORIENTACIÓN

El viernes, 19 de enero, celebraremos la 8ª Feria de orientación académica y profesional de la Ikastola dirigida al alumnado de 4º de ESO y Bachillerato.

La cita ofrecerá información sobre la oferta de varias Universidades y centros de Formación Profesional a través de stands y charlas de presentación que se desarrollarán la tarde del viernes.

Durante la mañana el alumnado de 4º de ESO y Bachillerato participará en talleres y sesiones prácticas de orientación académica y profesional. Ya por la tarde, a partir de las 15:30, se instalarán en el Hall de entrada a la Ikastola puestos de información de las Universidades y centros de Formación Profesional participantes, que desde las 16:00, ofrecerán también charlas informativas sobre su oferta educativa.

ESCUELA DE PADRES Y MADRES DE EDUCACIÓN PRIMARIA

El 22 de enero, lunes, tendremos una nueva sesión de la escuela de padres y madres de Educación Primaria en la sala de reuniones del Hall de la Ikastola de 14:45 a 16:00 ofrecida por el gabinete de servicios psicológicos de salud Osadi.

En esta ocasión el tema a tratar será “Cómo potenciar la autoestima en nuestras hijas e hijos. La importancia de la frustración.”

Las personas interesadas deberán cumplimentar el formulario de inscripción antes del 19 de enero.

Las próximas sesiones tendrán lugar los lunes 19 de febrero, 12 de marzo y 9 de abril. Los temas a tratar se anunciarán más adelante.

inscripción






CARNAVAL EN EDUCACIÓN INFANTIL

Se acerca el carnaval y como todos los años llega la hora de preparar el disfraz. Este año el tema de Ikastola será EL CIRCO y a Educación Infantil nos corresponde el disfraz de PAYASO.

Os proponemos utilizar las ropas de colores que tengamos en casa, combi-nándolas como cada cual quiera, es decir, dad vía libre a la imaginación! En internet podéis ver también imágenes para orientaros.

¡Animo, seguro que os queda precioso!



EL 2º CICLO DE EDUCACIÓN INFANTIL REALIZARÁ TAMBIÉN DÍA DE FRUTA

Siguiendo la iniciativa puesta en marcha en Educación Primaria, en adelante los miércoles serán día de fruta en el 2º ciclo de Educación Infantil a la hora de realizar en almuerzo.

Deberéis tener en cuenta que el niño o niña que le corresponda el turno deberá traer fruta de temporada suficiente par un grupo de 25-26 niñas y niños de 3, 4 y 5 años: 7 manzanas, 2 kilos de fresas...

Con esta iniciativa tenemos como objetivo que adquieran la costumbre saludable de tomar fruta y promocionar la fruta como un componente importante de la alimentación.

